


Balendin Aurre-Apraiz

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Ajangiz:

Auxe da Balendin Aurreren zorterrria. Emen jaioa dogu 1912 urtean. Axangiz errixka Bizkaian, Gernika aldeko muiño eder batean jarria dago. Ikus-toki berezia da Gernika inguruetako etxe, zelai eta mendiak atsegiñez begiratzeko.

Bere familia:

Zoritxarrez, alde batetik, bere familia, guraso, seme-alaben daturik ez daukagu, baña beste aldetik ziur jakin dakigu orduko garaietan bere familia Kristau bizitzaren eredu bikaña zala. Balendin, barriz, eliz gizon argi ta jakintsua, ta euskera gaietan zearka ibilli barik zuzen doa gauzak legez eta euskal araudien bidez zuzentzera.

Idazlari trebe ta joria izanik bere idazlanak euskal erriko karmeldarrak liburutegian daukez. "Balendin zintzoa eta benetalaria da bere idazlan gutietan. Bere gogo-pozak, kezak eta min biziak tolestura aundi barik erakusten daki. Beti Bizkaiko erri-euskera jatorraren usain baserritarra zabaltzen diardu. Bere jokabidea jarraituz nai dau, adore biziak, euskeraren jatortasuna zeatz jagon erderaren menpean ez jausteko"

Erriko Euskeraren babesle azkarra:

Erriko euskera gaietan ara emen bere eritzi gogoangarriak: "Beste izkuntzen antzera, euskerak be baditu bere esakera jatorrak barne muiñetan josiak. Belaun aldirik belaunaldi esakera asko bizi izan dira geugana iraun dabenak, baña beste asko galduak izan diranak. Oraingo euskaldun askok, euskeraz diarduenean erderara jo oi dabe esakizuna atontzeko. Sarritan entzun oi dogu gure artean "ze ume polita", "ze egun ederra", "ze otz dago" etb. Euskaldunak era asko daukaguz "ze" arrotz ori baztertzeko. Ara emen: "au ume polita", "Au umearen polita", "ume au bai polita" "Au da egunaren ederra", "Egun au

bai dala ederra” “egun au baño edera-
gorik”, “au da otza”, “egundoko olako
otzik” etb.

Como no? Ori baztertzeko guk
euskaldun jatorrak esango dogu:”oba
ez” Ederto diño ba Kerexeta jaunak
Orbela liburutzuan “Egingo doguz-
”oba ez”, mamuak edur ganean ta
zintzo jokutzen badogu indarberri-
tuko dogu gure euskara, “oba ez” naiz
ta arerioak geureak eta besteak izan.
“oba ez” “Qui scribit, bis legit” *“Idaz-
ten dabenak sarri irakurtzen dau”*.

